

/ Nabarmentzekoak

- > Konporte kaleko Ogasuneko Foru Bulegoaren aldi baterako lekualdatuko da, hobekuntza lanak direla eta (2. or.)
- > Gazteen artean gero eta hedatuago dauden edari energetikoen ondorioei buruzko bideoa (4. or.)
- > Adinekoentzako jarduerak bizi-kalitatea hobetze eta nahi ez den bakardadea prebenitze aldera (5. or.)



* **Formatu desberdineko jarduerak emakumeen borrokak ikusarazi eta aintzatetsiko dituzte M8ari begira (4. or.)**

Umorezko bakarriketa. Ostirala, martxoak 27, 20:00etan, Muxikebarrin, "Humor negra", Asaari Bibang-ekin. 10 euro.

Dantza. Larunbata, martxoak 7, 20:00etan, Muxikebarrin, "Romance sonámbulo", Antonio Najarroren konpainiarekin. 30 euro.

A-
GENDA

Udal Gobernuak bere arloak berrantolatu ditu hiru zinegotzi berri sartu ondoren, zerbitzu publikoen egonkortasuna eta jarraitutasuna indartuz

Udal Gobernuak udal arloen berrantolaketaren berri eman du, hiru zinegotzi berriak Getxoko Udalean sartu ondoren.

Berrantolaketaren helburua da udal zerbitzuen ohiko funtzionamendua bermatzea eta eguneroko kudeaketan normaltasuna sendotzea, herritarrei zerbitzu publikoak ematean jarraitutasuna eta egonkortasuna ziurtatuz.

Erantzukizunen banaketa berrian:

- **Aingeru Torrontegi** Ogasuna eta Diruzaintza hartuko ditu bere gain.
- **Elisabete Basañez** Ekonomia eta Turismo Sustapeneko, Bide Publikoko Ekitaldietako, Punta Begoñako eta Herritarren Arreta Bulegoko buru izango da.
- **Carlos Sergiok** Ingurumenaren arloa zuzenduko du.

Gobernu-taldearen barne-berrantolaketari dagokionez:

- **Gorka Mostajok** bere gain hartuko ditu Kultura, Gobernu Irekia eta Parte-Hartzea, eta Euskara.
- **Zalao Campillo** Eraldaketa Digitalaz, Komunikazioaz, Kontratazioaz eta Pertsonalaz arduratuko da.

Gainerako udal arloetan ez da aldaketarik izan. Amaia Aguirre alkateak aro berri honi egonkortasunez eta konpromisoz aurre egiten zaiola azpimarratu du: "Azkar eta arduraz jokatu dugu Udal Gobernu berrantolatzeko eta lehen unetik zerbitzu publiko guztien jarraitutasuna bermatzeko. Udalak lantalde sendoa du, erabat operatiboa eta

prestaturia, udalerrriaren erronkei eta herritarren ongizateari erantzuten jarraitzeko".

Zinegotzi berriek ibilbide profesional sendoa eta esperientzia eskaintzen dute esparru publikoan eta kudeaketan.

Zinegotzi berrien ardura arloak

Aingeru Torrontegi: Ogasuna eta Diruzaintza.

Elisabete Basañez: Ekonomia eta Turismo Sustapena, Bide Publikoko Ekitaldiak, Punta Begoña eta Herritarren Arreta Bulegoa.

Carlos Sergio: Ingurumena.



Aingeru Torrontegi



Elisabete Basañez



Carlos Sergio

Ibilbidea eta esperientzia

Aingeru Torrontegi Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna da Deustuko Unibertsitatean, eta gaur egun Hiri Antropologian, Migrazioetan eta Esku-hartze Sozialean Masterra egiten ari da. Salmenta eta marketin arloetan MARS nazioarteko konpainian aritu ondoren, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa garatu zuen bere ibilbide profesionala.

Elisabete Basañez Musika Eskola/Getxo Kulturaren mandataria da 1999tik, eta prestakuntza du informatikako idazkaritzan eta toki erakundearen kudeaketan, baita herritarrei arreta emateko eskumenetan ere.

Carlos Sergio Gorputz Hezkuntzako lizentziaduna da Vitoria-Gasteizko Soin Hezkuntzako Euskal Erakundearen, eta Irakasletzan diplomatua, Giza Zientzietako espezialitatean, Bilboko Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolan. Gainera, Ikasketa Aurreratuen Diploma (DEA) du Deustuko Unibertsitateko Aisialdi Institutuan, "Aisia eta giza garapena" programaren barruan, eta Saskibaloiko Goi Mailako Kirol Teknikaria da. Arlo profesionalean, irakasle aritu da Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolako Adierazpen – Gorputz Hezkuntza Sailean. Bere ibilbide publikoan, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Saileko aholkulari nagusia izan da (2015-2023), Getxoko Udaleko zinegotzia 2019-2023 agintaldian, eta, gaur egun, Bizkaiko Foru Aldundiko Kiroleko zuzendari nagusia da.



MARTXOAK 4 ASTEAZKENA

Aurkezpen literarioa. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Ese manantial de versos" liburuaren aurkezpena (gaztelaraz), Mari Jose Rodriguez egilearekin.

Ziklo dokumentala. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, Sandra Romanaren "Mujeres calvas" dokumentalaren proiektzioa. Gonbidapenarekin (RKEEn eta Muxikebarrin).

MARTXOAK 5 OSTEAGUNA

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Jafar Panahiren "Un simple accidente" (AJB). 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

MARTXOAK 6 OSTIRALA

Umorezko bakarrizketa. 20:00etan, Muxikebarrin, "Humor negra" (gaztelaraz), Asaari Bi-bang-ekin. 10 euro.

Zine-kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Jim Jarmuschen "Father Mother Sister Brother" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

MARTXOAK 7 LARUNBATA

Dantza. 20:00etan, Muxikebarrin, "Romance sonámbulo", Antonio Najarro konpainiarekin. 30 euro.

MARTXOAK 8 IGANDEA

Zinematxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Orkestra lurtarra" (euskaraz). Adin guztiak. 2,50 euro.

Haurrentzako antzerkia. 16:30ean eta 18:00etan, "Univers", Engruna Teatre konpainiarekin. 0-2 urte. 10 euro.

OTSAILAK 26 OSTEAGUNA

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Alberto Gastesiren "Singular". 12 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

Txokoa. 19:30ean, Villamonte Kultur Etxean. Joxean Agirreren "Gizon barregarriak" liburuari buruzko solasaldia, doan. Egizuk antolatuta. Izena emateko: labur.eus/irakurzaleak

OTSAILAK 27 OSTIRALA

Zine Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Alex Thompson & Kelly O'Sullivanen "Ghostlight". 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

Negufest. 21:00etan, Muxikebarrin, La Habitación Roja taldea (indie pop-rocka). 22 euro.

OTSAILAK 28 LARUNBATA

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Nor naitzen baneki", Artedrama + Axut! konpainiarekin. 8 euro.

Solasaldia. 11:00etan, Azebarri Kultur elkartean. "Zikloturisten bidaia-kontaktak", doan. Mintzapraktika ekimenaren barruan.

MARTXOAK 1 IGANDEA

Zinematxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Diplodocus" (gaztelaniaz). Adin guztientzat. 2,50 euro.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "La niña de la cabra". Adin guztientzat. 2,50 euro.

Garbiketa zerbitzua indartu da eskuzko ekorketa egiteko orga elektriko berriekin

Udalak orga elektriko osagarri berriak sartu ditu kaleak garbitzeko zerbitzuan, bide publikoan eskuzko ekortze-lanak egiten laguntzeko. Tresna berri hau dagoeneko martxan dago udalerriko kaletan.

Orga elektriko berriak, 25 dira guztira, eskuzko ekorketako langileen eguneroko lana errazteko diseinatuta

daude eta bereziki erabilgarriak dira orografia konplikatu duten eremuetan, maldek langileen eta materialaren desplazamendua zailtzen baitute. Hondakinak eta erremintak garraiatzea errazteaz gain, ekipo berriek jatorriko bereizketa hobetzeko aukera ematen dute, zatikien arabera bereizitako kuboak dituztelako. Era berean, garbiketa lanetan erabiltzen diren hai-

ze-makinak elikatzen dituzten bateria elektrikoetarako euskarria dute.

Eskuzko ekorketako langileek xurgatze-ekipoekin osatzen dute beren ohiko lana. Ekipo horiek astean behin jarduten dute udalerrian, eta hondakin txikiak biltzea ahalbidetzen dute, hala nola zigarrorokinak, paperak, pipa-oskolak edo txikleak, txorkoetan, zokoetan eta iristeko zailak diren beste espazio batzuetan pilatzen direnak.

Janire Ocio Azpiegitura, Obra eta Zerbitzuetako zinegotziak azpimarratu duenez, "Udalak aurrera egiten jarraitzen du bideak garbitzeko zerbitzua modernizatzen, ergonomia eta lan-baldintzak hobetzearen alde eginez, eta, aldi berean, zerbitzua eraginkorrago eta iraunkorrago ematearen alde eginez, herritarren eta Getxo garbiago baten alde".



Martxoaren 3tik aurrera, Sarrikobaso kaleko 28. zenbakian artatuko da.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Bulegoa aldi baterako itxiko da, hobekuntza lanengatik

Ahalik eta zerbitzurik onena emateko, hobekuntza-lanak egingo dira Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak Konporte kalean (z.g.) duen bulegoan. Horrek bulegoaren aldi baterako itxiera ekarriko du, ostiral honetatik, otsailaren 27tik.

Aldi baterako itxiera horrek herritarrengan izan dezakeen eragina dela eta, **martxoaren 3tik aurrera** eta beste abisu bat eman arte, zerbitzua **Algortako Sarrikobaso kaleko 28. zenbakian** emango da. Bulego hau zerga-izapideak egiteko erabili ohi duten pertsonak aipatutako helbide berrian ja-

rraitu ahal izango dute, ohiko ordutegian, 08:30etik 14:00etara. Halaber, Foru Aldundiak gogorarazi du ordutegi hori errenta-kanpainan eta udako jardunaldian aldatu ohi dela. Zergei buruzko informazioa jasotzeko call center-a ere eskuragarri dauka 94 612 55 00 telefonoan, 08:30etik 19:00etara.

Foru erakundeak adierazi duenez, aldi baterako lekualdaketa horrek eragozpenen bat sor badezake ere, bulegoa Konporte kalera itzuliko da, instalazio berrituekin eta zerbitzu zabalagoarekin.



2026rako zerga-egutegia onartu da

Udalak 2026 ekitaldirako zerga-egutegia onartu du, eta dagoeneko baditu epeak honako zerga hauek ordaintzeko: Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen (TMIZ) eta Ondasun Higiezin (OHZ) Zergak, ibilgailuak lursailen barrura espaloien bidez sartzeagatik eta aparkaleku-erreserbategi ordaindu beharreko tasak (IBIAK), auto-TAXIEN aparkalekua erreserbatzeagatik eta bide publikoa okupatzeagatik ordaindu beharreko

tasak: kioskoak, ibilgailuak udal bide publikoetan aparkatzeagatik (TAO txartelak), kutxazain automatikoak eta terrazak.

• **Helbideratu gabeko ordainagiriak.** Borondatezko ordainketa epea: ekainaren 1etik uztailaren 17ra.

• **Helbideratutako ordainagiriak.** Helbideratutako kobrantza ekainaren 30an egingo da. Ekitaldi honeta-

rako banku-helbideratzea eskatzeko edo aldatzeko epea apirilaren 24an amaituko da.

• **"Nahierako Ordainketa" aukeraren ordainagiriak.** Helbideratutako ordainketa ondorengo epeetan egingo da:

- 4 epeko aukera: ekainak 10, uztailak 10, irailak 10 eta azaroak 10.
- 2 epeko aukera: ekainak 10 eta irailak 10.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bitzitari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.



La Habitación Roja taldeak 30 urteko musika-ibilbidea ospatuko du Muxikebarrin

La Habitación Roja talde valentziarrak, indie espainiarrean erreferente denak, kontzertua eskainiko du Muxikebarrin ostiralean, otsailak 27, 21:00etan, *Los mejores años de nuestra vida* biraren barruan, 30 urteko ibilbidea ospatzeko.

Ospakizunak hiru hamarkada errebasatzen ditu sortu zenetik, 90eko hamarkadan, Espainiako eszena independentean zuen lekua berretsiz, *Indestructibles* bezalako abestiekin.

La Habitación Roja L 'Elíanan

sortu zen 1995ean eta bere izena Jorge Martí, bere liderra, abeslaria eta gitarra-jolea bizi izan zen Nartariat kaleko etxeko egongelatik dator. Martírekin batera, taldea José Marcok baterian, Pau Rocak gitarran eta Marc Greenwoodek baxuan osatzen dute. Estudioko 14 disko argitaratu dituzte, 250 abesti baino gehiago idatzi eta grabatu dituzte, eta 1.000 kontzertu baino gehiago eman dituzte Espainian, Europan eta Amerikan.

Taldekiek gonbidapen berezia egin dute kontzertu honetan parte hartzeko. *"Privilegio bat izan dugu: familia maitagarri bat osatu dugu gure atzetik dabilen jende guztiarekin batera, eta ohore handia izan da urteetan zehar lagun egitea"*. Sarrera: 22 euro.



"Nor naizen baneki", identitatearen bilaketari buruzko lana

Artedrama eta Axut! konpainiek *Nor naizen baneki* antzezlanaren aurkezpena egingo dute Muxikebarrin, osteguneko 28. emanaldia euskaraz izango da, 20:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 8 eurokoa izango da.

Nor naizen baneki Harkaitz Canok eta Ximun Fuchsek idatzitako antzezlan garaiak da, antzerki batean egindako indusketa arkeologiko baten metaforaren bidez identitatea eta memoria aztertzen dituen. Aktoreen artean, Ramon Agirre, Garoa Bugallo, Maialen Diaz, Aline Etxeberri, Manex Fuchs, Idoia Tapia eta Oier Zuñiga daude.

2026an estreinatuko den, eta 2.000 urteko historia du, traumak, gatazkak eta aldaketa sozialak lurpetik aterata, erromatarren garaitik gaur egun arte. Ikusizunean, antzerkiak eta arkeologiak elkargune bera partekatzen dute: etengabe berrasmutzen den giza zientzia gisa. Horregatik, obraren sorreran, Aranzadi Elkarteko arkeologoaren laguntza izan dute. Emaizta agertoki biluzi batean irudikatutako pieza bat da, non laser teknologiak eta bideo-proiektzioek espazioak eraikitzen eta narrazioa hierarkizatzen laguntzen duten, eta gorputza eta ahotsa memoria historikoaren tresna bihurtzen diren.

"Mujeres calvas" dokumentalaren proiektzioa

Martxoaren 4an, asteazkena, Sandra Romanen *Mujeres calvas* dokumentala proiektatuko da Romo Kultur Etxean, 19:00etan, Getxo Kulturak antolatzen duen Dokumental Zikloaren barruan.

Ikus-entzunezko pieza honek emakumeen alopeziaz hitz egiten du, inork ez dakien eta inork aipatzen ez duen ezkutuko gaia. Zazpi emakume burusoil isiltasun hori lehen aldiz hautsi eta hitza hartzen. Haien testigantzak bidaia hunkigarri bihurtzen dira, oinazetik sakonena zeharkatzen duena eta alaitasuna ekartzen duena. Askatasunerako bide partekatua, presio estetikoak ezkutatzera behartzen jarraitzen duen gizarte batean. Sarrera gonbidapenarekin (RKEN eta Muxikebarrin).



"Un fin doméstico y privado", eguneroko bizitzari eta aitatasunari begirada intimo eta gogoetatsua

Iñigo Larroque Aranguren *Un fin doméstico y privado* literatur lana aurkeztu du Romo Kultur Etxean. Bertan, eguneroko bizitza, aitatasuna eta memoria aztertzen ditu begirada intimo eta gogoetatsu baten bidez. Izenburua Michel de Montaigneren Entseguei buruzko erreferentzia zuzena da, bere hitzaurrean ohartarazten baitzuen asmo *"etxekoa eta pribatua"* besterik gabe idazten zuela. Protagonista, Diego, 40 urte bete dituen, familia propioa osatu duen eta bi haurren aita den gizon bat da. Liburuaren protagonista *"gehiago eta hobeto bizitzeko"* modu gisa idazten jarraitzeko erabakian oinarritzen da, idazten ez dena agian gutxiago pentsatu eta bizitzen delako premisapean. Oroimenak eta paseoak denboraren joana eta ingurunearekiko harremana neurtzeko balio dute.

Hainbat formatutako jarduerak agerian jarri eta aitortuko dituzte emakumeen borrokak M8rako

Indarkeria matxista patriarkalei aurre egiteko emakumeen borrokak ikusaraztea izango da Udalak martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta antolatutako formatu desberdinetako jardueren ardatza. "Emakumeen borrokak ez dira iraganeko kontua bakarrik; gure kaleetan, gure auzoetan eta gure etxeetan presente daude. Haiek aitortzea justiziazko ekintza bat da, baina baita erantzukizun kolektibo bat ere. Udaltik berdintasun errealarekiko eta egungo zein etorkizuneko belaunaldientzat bidezkoagoa izango den gizartea erakitzeke dugun konpromisoa berresten dugu, indarkeriarik gabeko eta berdinezaleagoa den Getxo baterantz aurrera eginez", nabarmendu du Amaia Aguirre alkateak.



Hilabete osoan zehar, Emakumeak* oroimen biziak haritzen eta erresistentziak ehuntzen sistema eraisteko lelopean, hainbat jardura izango dira, helburu konpartituekin, "ekimen batzuk proposatzen ditugulako, emakumeek zenbait testuingurutan indarkeria matxista patriarkalei aurre egiteko dituzten borrokak eta erresistentziak agertzeko eta aitortzeko, eta biolentzien justifikazio edo ukazio deslegitimatzen duen tresna gisa, baita gizarte bidezkoago eta berdintasunezkoago baterantz aurrera egiteko ere", azaldu du Carmen Díaz Kohesio Sozialeko zinegotziak.

Egitaraua Gurarin

Ekitaldien egitaraua astelehenean, martxoak 2, hasiko da, 18:00etan,

Gordofobia. Violencia social contra los cuerpos izenburupeko solasaldia-ekin. Maitane Garciak indarkeria ikusezinenetako bat jorratuko du, eta hortik dator bere garrantzia, gordofobiaren jatorri sozialak, heteropatriarkatuaren papera eta indarkeria horren eragina azaltzeaz gain. Martxoaren 3tik 30era Bilaketa II erakusketa ikusi ahal izango da, Guatemalako emakumeek memoriaren eta justiziaren aldeko borrokan duten errealitateari buruzkoa. Cristina Chiquín Rodríguez argazkilariaren argazki erakusketa izango da, Entreamigos-Lagun Artean GKEaren laguntzarekin antolatuta. Aretoan bideo labur bat proiektatuko da, erakusketa osatzen duten 20 argazkiak eta testigantzak

biltzen dituzten bi liburu izango dira, baita bisita gidatuak ere. Memoriak berreskuratzeko eta gure erreferenteek egindako estrategiak ezagutzeko fanzine tailer bat martxoaren 11n eta 25ean izango da, 18:00etatik 20:00etara, emakume hurbilen borrokek eta erresistentziek duten garrantziari buruzko oroimenezko, identifikazioko eta errekonozimenduzko ariketa bat egiteko, eutsi dioten emakumei. Hilaren 13an, 18:00etan, A viva voz poesia eta kantu errezitaldia izango da, Haizea Murgia poetaren, Las poetas vivas klubaren eta Lonbardak abesbatza feministaren partaidetzarekin. Eta, Hariak, orratzak eta zauriak izango da martxoaren 24an, 18:00etan, Mireia Delga-

dorekin izango den helduentzako ipuin saioaren izenburua.

Jarduerak Gaztelekuetan

Bestalde, 11 eta 17 urte bitarteko gazteentzako jarduerak ere antolatuko dituzte Romoko eta Algortako Gaztelekuetan, feminismoari buruzko ezagutza, genero-estereotipoen buruzko gogoeta eta berdintasunari buruzko komunikazioa sustatzeko.

Romokoan, martxoaren 3tik 8ra, arratsalde, Eusten duten emakumeen istorioak tailerra egingo da. Bertan, horma-irudi bat egingo dute, eta bertan, pertsona bakoitzak berarentzat garrantzitsu den emakume bati buruz marraztu, deskribatu, esaldi tipiko bat jarri, zerbait kontatu edo objektu bat jarri ahal izango du. Bestalde, 6an bigo feministak izango da, 18:00etan, eta 7an, arratsaldean zehar, pankarta feministak egingo dituzte, lelo, irudi eta ikur feministekin.


Algortako Gaztelekuetan, martxoaren 3, 5, 6, 7 eta 8ko arratsaldeetan, ahalduntze feministaren eta gizonezkoaren despatriarkalizazioaren inguruko gizarte eta hezkuntza arloko eskuhartze proposamena ezartzeko tailerrak izango dira.

Azkenik, aurrekoetan bezala, martxoaren 7 eta 8ko gauetan Areetako kaia eta udalerriko igogailuak morez argiztatuko dituzte.

Gazteen artean gero eta hedatuago dauden edari energetikoen ondorioei buruzko bideoa

Udaleko Adikzioen Prebentzio Zerbitzuak edari energetikoei buruzko bideo bat egin du (<https://www.youtube.com/watch?v=4XX4C-DdWRW0>), Zure esku dago lata ematea izenekoa, informazio eta prestakuntza egokia emateko, seme-alaben bizimodu osasungarriak sustatzeko, eta adikzio- eta bestelako jokabide arriskutsuen prebentzioa bultzatzeko.

Informazio-euskarri berri horri esker, Familia Eskolako prestakuntza-saioetan eta Seme Alabak argitalpenean landutako edukiak indartu ahal izango dira, eta Udalaren webgunearen eta sare sozialen bidez zabalduko da. Horrela, prebentzio-mezuak komunikazio-formatu berrietara egokitu eta haien hedapena zabaltzeko, familiengana eta gazteengana iristeko, azken horiek osatzen baitute edari energetikoen kontsumitzeko arrisku handiena duten biztanle-taldeetako bat. Bideoak edari horiek osasunean di-



tuzten ondorio eta arriskuei buruzko informazioa ematen du, bereziki gazteen osasunean.

Edari energetikoak duela urte batzuetatik hona herrialde askotan libreki merkaturatzen diren produktuak dira, eta oker aurkezten dituzte erresistentzia fisikoa areagotzen duten, ongizate-sentsazioa ematen duten eta metabolismoa estimulatu egiten duten edari energiztzaile gisa, kafeina, taurina eta azukrea barne hartzen dituzten konposatu nahasketaren bidez.

Bigarren Hezkuntzako drogen erabilari buruz Osasun Ministerioak egindako inkestaren arabera, ikasleen ia %39k mota horretako edariak hartu dituzte azken 30 egunetan, %45,7k mutilak eta %31k neskek. Gainera, 14-18 urteko ikasleen %15,2 inguruk alkoholarekin nahastuta kontsumitzen ditu, eta horrek arriskuak areagotzen ditu.

Adinekoentzako jarduerak bizi-kalitatea hobetze eta nahi ez den bakardadea prebenitze aldera

Udaleko +60 Dinamizazio eta Zahartzeko Aktiboko Zerbitzuak hainbat jarduera antolatu ditu martxoan, adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko, aktibo mantentzen laguntzeko eta nahi ez den bakardadea prebenitze-

ko sare sozialak ezartzeko.

Martxoaren 3an, 17:00etan, RKE-Romo Kultur Etxean, Eusko Jaur-laritzak diruz lagundutako *Bizihabi* adinekoen eta gazteen arteko bizi-kidetzarako ostatu-programaren aurkezpena egingo dute. Hurrengo egunean, martxoaren 4an, 18:00etan, Urgull Zentroan, jokabide suizidaren prebentzioari buruzko hitzaldi bat izango da, *Alerta Zurt* proiektuarekin lankidetzan. Azkenik, martxoaren 10ean, 17:00etan, Romo Kultur Etxean eta 17an, 12:00etan, Bidezabaleko osasun-zentroan, hitzaldi bana egingo da erortzearen prebentzioari buruz. Osakidetzarekin elkarlanean antolatutako hitzaldi horietan alde aurretiko izenematea egin beharko dute interesatuek RKE-n edo 944 66 00 22 zenbakian.



“Nola prestatu zure saltokia eskualdatzeko” gaiari buruzko informazio-saioa Getxo Elkartegian

Udaleko Ekonomia Sustapena Arloak informazio-saioa antolatu du Enpresa Transmisioko programaren barruan. Horren helburu nagusia da udalerriko enpresen jarraipena erraztea, negozio bide-

ragarriak ixtea saihestuz.

Hitzaldia martxoaren 5ean izango da, osteguna, 14:30ean, Getxo Elkartegian (Ogoño 1, Areeta), eta Nola prestatu zure saltokia eskualdatzeko gaia izango du hizpide.

Getxolanen azaldu dutenez, “enpresa bat transmititzea ez da daukazuna saltzea, eraiki duzun balioa transferigarri egitea baizik. Tailer honetan, gure negozioa transmititzeko eta erreleboa emateko orduan kontuan hartu beharreko hasierako gaiak identifikatuko ditugu”.

Hauek dira ekimen honen helburuak:

- Ondorengotza planifikatzearen garrantziaz kontzientziatzea
- Balorazioan eta negoziazioan trebatzea
- Erreleboa bilatzea sustatzea (barnekoa/kanpoko)
- Negozioaren jarraipena, errentagarritasuna eta balioak ziurtatzea, sortzaileak, zuzendaritza eta ondorengoak lerrotuz

Interesa dutenek getxopro@getxo.eus helbide elektronikoa eman dezakete izena, 94 466 01 40 telefono zenbakira deituz edo online hemen:

<https://www.getxo.eus/eu/promocion-economica/noticias/1494>

EuskarAbentura 2026rako izenematea amaitzear

Martxoaren 2an amaituko da uztailean Euskal Herria oinez eta euskaraz zeharkatuko duen EuskarAbentura Espedizioaren zortzigarren edizioan parte hartzeko lanak aurkezteko epea. Izen bereko elkarteak antolatuta, hainbat entitateren laguntzarekin, tartean Getxoko Udalarena, zazpi lurralde euskaldunetako eta diasporako 127 gaztek hartuko dute parte, euskararen erabilera sustatzeko, gazte euskaldunen sareak sortzeko



eta kultur transmisioa indartzeko. Gazteek aurkezpen bideo bat eta proiektu bat aurkeztuko beharko dituzte, proposatutako euskarri batean, hurrengo gaietako bati buruz: *Zer da euskalduntasuna?, Ametsak egi bihur daitezke? edo Zein garai historikora joan nahiko zenuke?* Apirilaren 22an argitaratuko da behin-behineko hautatuen zerrenda webgunean. Informazioa: <https://euskarabentura.eus/eu/>



18 urtez azpiko eta 16 urtez azpiko Getxo Rugby taldeak Espainiako Txapelketan

Getxo Rugby taldeko 18 urtez azpiko eta 16 urtez azpiko gizonetako taldeek Espainiako Txapelketako lehen fasea jokatu dute euren kategorietan, martxoaren 22an. Euskal ligetako lehen itzuliak amaitu ondoren, bi taldeak lehen postuan amaitu dute, eta, beraz, Estatuko txapelketa jokatu dute. Lehiaketa horren lehen faseak lau taldeko lau multzo bilduko ditu. Multzo bakoitza egoitza batean

jokatuko da, eta horietako bakoitzeko garaileak azken faseko txartela lortuko du. Azken fasean, finalerdiak eta dagokion finala jokatu dira, non talde txapelduna erabakiko den.

Getxo Rugby taldeak D multzoan jokatu ditu bi txapelketak, Andaluziako lehen sailkatuarekin eta Madril eta Valentziako Erkidegoetako bigarrenekin batera.

LONJAKPIZTU

DIRULAGUNTZAK
HUTSIK DAUDEN
LOKALAK
ALOKATZEKO

AYUDAS
ECONÓMICAS
AL ALQUILER DE
LOCALES VACÍOS

ZABALIK
ABIERTO



Informazio gehiago | Más información
www.getxo.eus/promocion-economica

f @getxolan

Udal talde politikoaren iritzia



GETXON INGURUMENA ERRESPECTATZEN DUGU

Ia hiru urte igaro dira EAJ-PNVk konpromiso argia azaldu zuenetik, eta pixkanaka errealitate bihurtzen dela ikusten ari gara. Gure hauteskunde-programan hau adierazi genuen: «Getxok natura-ingurunea errespetatuko du eta jasagarria izango da. Inguruko balioak txertatuko dira, hiriarekin bateragarri egiteko eta lanean aritzeko eskuragarri dauden baliabideak hobeto aprobetxatzen dituen udal-erredua lortzeko». Getxoko EAJ-PNV alderdiaren konpromisoa da hori, eta nabarmendu beharra dago hiri-hondakinen arloan zenbait estrategia ezartzen jarraitzen dugula, besteak beste, hondakin-kopurua murrizten, jatorrian ahalik eta gehien banatzen, eta ekonomia zirkularraren hastapenen arabera berrerabiltzeko prestatzen. Halaber, hiri-hondakinak kudeatzeko estrategia berriak sendotzen ari gara, hala nola konpostatzea eta biolehortzea, azken tratamendurako honda-

kinak murriztea eta benetako ekonomian produktu berriak txertatzea xede. Azken asteetan, ikusi egin dugu zaborrontziak hobetzen ari direla eta bilketek kalitate handiagoa daukatela. Hobekuntzak daude zaborrontzietan, ohiko zaborrontzietara bota behar ez diren hondakinak botatzeko hurbileko espazioetan eta tamaina handiko hondakinen bilketan. Arestian, GARBIGERTU gertuko garbigune finkoen erabileran laguntzeko kanpaina berezia izan dugu, baita tamaina handiko hondakin berrerabilgarriak biltzeko zerbitzuaren kanpaina ere. Bi zerbitzu horiek oso garrantzitsuak dira ekonomia zirkularraren beharrezko eredu jasagarrian aurrera egiteko, zeinak murrizteko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko aukera ematen digun. Guztion lankidetzara funtsezkoa da gure kaleak zainduta mantentzeko eta oraindik ere erabilgarriak izan daitezkeen hainbat objektu bizitza berria emateko.

Halaber, egun gutxi barru kanpaina bat izango dugu Areetan, Getxon, zaborrontzi organikoaren (marroien) erabilera ahalik eta hoberen ezagutzeko. Bizkaiko Foru Aldundiak Getxora ekarriko du «AZE MARROIA, EL GRAN MARRÓN» kanpaina. Modu ludiko eta atseginean, errealitate birtualaren eta lehiaketa entretengarrien bidez, kanpainak gure ezagutzak probatuko ditu eta, gainera, hondakinen eta birziklapenaren inguruko informazio oso interesgarria jasoko dugu, ziur. Kanpaina berezi horren helburua da ikasten jarraitzea hondakin organikoak banatzeari eta zaborrontzi marroian biltzeari buruz. Getxon eta beste zenbait espazioetan proiektu horretaz gozatu ahal izango dugu. Gure konpromisoak Getxon errealitate bihurtzen dira eta ahal bezain beste errespetatzen ditugu jasagarritasuna, natura-ingurunea eta ingurumena.



GETXON LARRAÑAZUBI ESKOLAK ETA A EREDUAK JARRAITZEAREN ALDE

Getxoko Popular Udal Taldeak **salatu** egin du **Larrañazubi HLHI ixtea** eta itxiera berehala bertan behera gelditze-ko eskatzen dugu. Erabaki horrek zuzenean kaltetzen ditu ikastetxeko ikasleak eta desagerrarazi egiten du **Getxon A ereduak** (gaztelania komunikazio-hizkuntza gisa) eskaintzen duen **aukera publiko bakarra**. Horrez gain, familiek adierazi digute **kezkatuta** daudela informazio- eta elkarrizketa-gabeziagatik, baita itxierak haien seme-alabengan izango lukeen **eragin akademiko eta emozionalagatik** ere, **hezkuntza-premia bereziak** dituzten ikasleengan

batik bat. Ondorioz, hezkuntza-proiektu sendoa apurtuko da eta alferrikako **ziurgabetasuna** sortuko da. Horrenbestez, gobernu-taldearen **isiltasuna** gaitzesten dugu, erabakiak hezkuntza-akera askeari eta hamarnaka adingabeen etorkizunari eragiten baitio. Hori dela-eta, hurrengo **Osoko Bilkuran, otsailaren 26an**, mozio bat aurkeztuko dugu eztabaidatu dezagun, eskolaren itxiera bertan behera uzteko eta **familiekin benetako elkarrizketa** izateko eskatzeko, adingabeen interesik handiena eta Getxon **A ereduak jarraitzea** erdigunean jarrita. #Andrade2027



ehbildu

GETXON ETXEBIZITZA BULEGOA SORTZEA PROPOSATUKO DUGU ETXEBIZITZAREN ARAZOARI AURRE EGITEKO

Etxebizitzaren arazoa larria da Getxon, eta gure herriaren etorkizuna baldintzatzen ari da. Prezio altuak, eskaintza eskasa eta etxebizitza huts ugari dituen udalerriri batean bizi gara. Horregatik, hilabete honetako **Osoko Bilkurara** proposamen zehatz bat eramango dugu: **Getxon Etxebizitza Bulegoa** sortzea. Gaur egun, alokairuaren batez besteko prezioa 1.000 euro ingurukoa da, eta eskaintza oso mugatua. Azken datuei erreparatuta, 3.000 etxebizitza baino gehiago daude hutsik, horietatik 900 berehala merkaturatzeko moduan. Azken hamarkadan milaka gaztek alde

egin dute Getxotik, eta etxebizitzak negozioa egitera bideratzen ari dira pisu turistikoak mugarik gabe zabaltzen. Proposatzen dugun **Etxebizitza Bulegoa** udalaren eskumenetatik arazoari modu integrarean heltzeko tresna litzaiteke. Helburua argia da: etxebizitza hutsak mobilizatzea, jabe eta maizterrei informazio argia eta gardena ematea, etxebizitza turistikoak kontrolatzea eta sortzen diren gatazketan bitartekaritza lana egitea. Bulegoak etxebizitza hutsak identifikatu eta alokairuan jartzeko oztopoak aztertuko lituzke, informazio eta tres-

na egokiak eskainiz. Maizterrek euren eskubide, betebeharrak eta laguntzen inguruko orientazioa jasoko lukete, eta jabeek alokairuaren baldintzei eta indarrean dauden araudiei buruzko argibide zehatzak emango litzaizkieke. Askotan, informazio falta da etxebizitza bat merkatura ez ateratzeko arazoietako bat. Halaber, etxebizitza turistikoaren kontrola indartu eta beharrezkoa denean dagokion prozedura abiatzea proposatzen dugu, udal ordenantza betearazteko. Horrez gain, jabeen eta maizterren arteko gatazketan edo pertsona mi-

granteek pairatzen duten arrazakeria inbentarioaren aurrean bitartekaritza aktiboa egitea ere funtsezkotzat jotzen dugu, diskriminazio egoerak prebenitu eta konponbide bidezkoak bultzatzeko. Bulego honek egoitza fisikoa izatea eskatzen dugu, herritarrentzat eskuragarri egongo den kokaleku batean eta beharrezko baliabideekin hornituta. EH Bildutik argi dugu: etxebizitzaren arazoa ez da bere kabuz konponduko, eta Etxebizitza Bulegoa urrats erreala litzateke Getxon etxebizitza eskubidea benetan bermatzeko.

PSE-EE
PSOE

KONPROMISO ARDURATSUA TEKNOLOGIEN ERABILERAREKIN



PARTAIETZA
AURREKONTUETARAKO
LORPENAK

Adikzioen Prebentziorako Unitateak «Gurea Erabil Dezakezu» kanpaina komunitarioa sustatu du. Horren helburua da lehenengo mugikorra emateko adina lankidetzan atzeratzea eta smartphonerik gabeko nerabezaroa luzatzea bultzatzea, goizegi erabiltzeak mendekotasuna eragin baitezake. Hainbat familiek segurtasuna bermatzeko ematen diete lehenengo mugikorra haurrei, autonomia handiagoa-

rekin mugitzen hasten direnean komunikatu ahal izan daitezkeen. Horregatik, hain zuzen ere, kanpainak udalerriko saltokiak eta zerbitzu publikoak barne hartzen ditu, eta xedea da espazio seguru eta hurbilen sarea sortzea adingabeek behar izatekoan bertara jo ahal izateko, adibidez, haien senideei deitzeko. Hala, **alternatiba komunitario** bat eskaintzen dugu komunikatzeko mugikorra izateko «beharra»

murriztu eta lehenengo telefonoa ematea atzeratu dadin. Merkatarien parte-hartzea eskertu nahi dugu eta **gainerako saltokiei dei egiten diegu bat egiteko eta sarea handitzeko**. Familien, eskola-komunitatearen eta Altxa Burua mugimenduaren laguntzari esker sortu da ekimena. Haien bultzatzen ari dira **garapenerako giltzarririk diren etapak babestearren** garrantziari buruz gizartearen hitz egitea.

Parte-hartze izaerako aurrekontuen prozesua martxoan abiatuko da eta Udal Gobernuak hobekuntzak egitea lortu dugu: Zubilleta parkean informazio-modulu bat egongo da; gizarte-zerbitzuetan, eskolatan eta beste udal-erakundeetan parte hartzeko kartelak jarriko dira; eta jakinarazi egingo da asko errepikatutako proposamen bat egingarria ez denean. Getxon benetako parte-hartzea eta gardentasuna indartzeko lanean jarraitzen dugu.